

# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1268

*EBAZPENA, 2022ko martxoaren 11koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Bergarako (Gipuzkoa) Arrizuriaga Jauregia eta haren lorategia Babes Ertaineko Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari, Monumentu kategorian. Era berean, espediente hori jendaurrean eta interesdunen entzunaldipean jartzen da.*

Euskal Autonomia Erkidegoak kultura-ondarearen arloko eskumen osoa bereganatu zuen, Konstituzioaren 148.1.16 artikulua babespian eta Autonomia Estatutuaren 10.19 artikulua kontuan hartuta. Onartutako eskumena baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea onartu zen. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-intereseko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen ditu.

Bergarako (Gipuzkoa) Arrizuriaga Jauregiak eta haren lorategiak historiaren eta kulturaren aldetik duten interesa ikusita, eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkeztutako ebazpen-proposamena aintzat hartuta, honako hau

## EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hasiera ematea Bergarako (Gipuzkoa) Arrizuriaga Jauregia eta haren lorategia Babes Ertaineko Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari, Monumentu kategorian, betiere kontuan hartuta ebazpen honen I. eranskinean ezartzen den mugaketa, II. eranskinean jasotzen den deskribapena eta III. eranskinean gaineratzen den babes-araubide partikularra.

Babes-espediente honi hasiera ematearen ondorioz, Bergarako (Gipuzkoa) Arrizuriaga Jauregiari eta haren lorategiari babes-araubide partikularra aplikatuko zaie berehala eta behin-behinean, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean Babes Ertaineko ondasunetarako aurreikusitako araubide erkide eta espezifikoak ere aplikatuko zaie.

Bigarrena.– Bergarako (Gipuzkoa) Arrizuriaga Jauregia eta haren lorategia, Monumentu kategorian, Babes Ertaineko Kultura Ondasun deklaratzeko hasitako espedientea jendaurrean jartzeko aldiari hasiera ematea, kontuan hartuta I. eranskinean agertzen den mugaketa, II. eranskinean jasotzen den deskribapena eta III. eranskinean gaineratzen den babes-araubide partikularra. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 20 eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokitze jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. eta 83. artikuluetan jasotzen denari jarraikiz. Aipatutako espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Bergarako Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuari eta Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentuari jakinaraztea prozedura hau hasteak eten egiten dituela eremu babestuetan partzelatzeko, eraikitze edo eraisteko lizentziak, bai eta lehendik emandako lizentzien ondorioak ere, babes-araubide partikularrean ezarritakoaren arabera. Finkan ezinbestean obraren bat egin behar bada eta obra hori atzerazina bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko da nahitaez.

Laugarrena.– Espedientea izapidetzen jarraitzea, indarrean dauden xedapenen arabera.

2022ko martxoaren 17a, osteguna

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea Bergarako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuari eta Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentuari, eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 11.


Kulturako sailburuordea,  
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.



## I. ERANSKINA

### MUGAKETA

Bergarako Arrizuriaga Jauregia izeneko Monumentuaren mugaketa bat dator egungo hiri-parkearen ertz urbanizatuekin, eta horien artean daude eraikina bera eta babes-ingurune bat, bere baitan hartzen dituena jatorrizko lorategi zuhaizduna eta etxadia osatzen duten gainerako berdegune libreak.

Aurreikusitako mugaketak zehazten du zer babes-eremu behar den multzoaren balio historiko, konpositibo-formal, urbanistiko, ingurumeneko eta naturalak babesteko, eta babestutako kultura-ondasuna osatzen duten elementu guztiak behar bezala kontserbatzeko eta balioa emateko.



<p>Planoa / Plano:</p> <p><b>DELIMITACIÓN DEL MONUMENTO PALACIO ARRIZURIAGA ARRIZURIAGA JAUREGIKO MONUMENTUAREN MUGAKETA</b></p>	<p><b>EUSKO JAURLARITZA</b>  <b>GOBIERNO VASCO</b></p> <p><small>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAIA Kultura Ondarearen Zuzendaritza</small></p> <p><small>DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA Dirección de Patrimonio Cultural</small></p>
<p>ESKALA / ESCALA:</p> <p>30 15 0 30 m.</p> 	<p>Lurraldea / Territorio: <b>GIPUZKOA</b></p> <p>Udalerría / Municipio: <b>BERGARA</b></p> <p>Data / Fecha: <b>23/02/2022</b></p> <p>Eskala / Escala: <b>1:1.000</b></p>

## II. ERANSKINA

### DESKRIBAPENA

1884. urtearen inguruan, Maria Purificación Urquizu Zurbano eta Jose María Unceta Murua senar-emazteek Arrizuriaga Jauregia eraiki zuten Unceta Etxeko baratze eta lorategietan. Etxe hori iparralderago dago, Bidekurutzetako errebalaren mugan, eta Unceta Loyola familiaren jabetzakoa da XVII. mendetik. Jauregi dotore hura, estilo eklektikokoa eta eragin frantsesekoa, lorategi berri eta mardul batez geratu zen inguratuta.

Jauregiak bolumen prismatiko trinkoa du, eta, hasieran, oinplano angeluzuzena hautsi zuen hego-mendebaldeko angeluan. Hegoaldeko eta mendebaldeko fatxaden atzeraemangune hori kendu egin zen mende erdi gehiago egindako obretan, eta hori da jatorrizko bolumenaren aldaketa bakarra; izan ere, egungo eraikinak bere horretan mantentzen ditu 5 altuerak (erdisotoa, beheko solairua, solairu nagusia, txapitula-formako bigarren solairua eta estalkipeko solairua); 4 isurkiko mantsarda-estalkia, goian argizulo zentrala duena; eta ipar-ekialdeko muturrari atxikitako oinplano oktogonaleko dorrea.

Fatxadak harlangaitzezkoak dira, eta hareharrizko harlanduz egindako plakak dituzte izkintan, platabandetan, bao-markoetan, inpostetan eta erlaitzetan. Ardatzetan lerrokatutako proportzio bertikaleko baoen konposizio erregular baten bidez antolatzen dira, eta zurezko kontraleiho tolesgarriak dituzte kanpoan (gaur egun desmuntatuta daude). Nabarmentzekoa da, bereziki, izkinako dorrea, konposizioaren simetria eta soiltasuna hausten dituen elementu berezi gisa. Fatxada nagusian bost bao-ardatz daude, zutabe-erdi ildaskatuz inguratutako ate zentral dintelduarekin. Sarrera horren alboetan, Unceta eta Urquizu familien leinuen armari bana dago. Fatxada horretako lehenengo solairuan, hiru baoko balkoi jarraitua dago, albo bakoitzean leiho angeluzuzen bat daukana. Harburu lisoko erlaitzaren gainean dagoen goiko solairuan, molduraz apaindutako hiru bao baino ez daude, txapitula formakoak; horietatik, erdiko baoa eta tximinia zilindrikoa nabarmentzen dira. Apaingarri hori, era berean, iparraldera eta hegoaldera begira dauden mantsardetan ere agertzen da tarteka.

Gainerako altxaeren osaerari dagokionez, fatxada nagusiaren ordenari eusten dio ardatz bertikaletan lerrokatutako baoekin (4 daude iparraldeko eta mendebaldeko fatxadetan, eta 7 hegoaldeko fatxadan), baina beste bao-ilara bat dute erdisotoko solairua argiztatzeko eta aireztatzeko, apaingarri gutxiagorekin. Atzeko fatxadaren konposizioa da gutxien zainduta dagoena. Hain zuzen ere, apaingarri gutxi ditu, zenbait elementu falta zaizkiolako: mantsarda, balkoiak eta baoen inguruko moldurak, zehazki. Gainera, beheko solairuan, neurri handiagoko baoak daude, ziurrenik erraztu egiten zutenak jauregiko espazio osagarri horien funtzioak (garajeak), bai eta espazio horiek lorategiarekiko duten lotura ere. Azkenik, fatxada honetan ikusten da argien nola kendu zen hego-mendebaldeko angelua, geroago egindakoa; izan ere, argi ikusten da horma-atalen diferentzia kromatikoa, bai eta erantsitako baoen ardatz bertikala konposizio simetrikotik desplazatu zela ere. Oro har, jatorrizko arotzeriak aldatu egin dira, baina oraindik mantentzen dira kanpoko kontraleihoak eta balkoietako errementarritza-lanak.

Estalkiak arbelezko jatorrizko estaldura mantentzen du: pikotx-formako piezak ditu plano bertikalenetan, eta pieza angeluzuzenak malda gutxiagoko isurialdeetan; era berean, zink-xafladun erremateak ditu, bai eta polikarbonatozko argizulo zentrala ere. Hala ere, estalkiaren barruko egitura, jatorriz egurrezkoa zena, aldatu egin zen 1953an, eta, haren ordean, hormigoizko egitura jarri zuten, gaur egun ere mantentzen dena. Izan ere, garai hartako jabeak, Gaspar Narvaiza Orbek, eraikina eraberritzeko eskatu zion Damián Lizaur arkitekto ofatiarrari, eraikinean 7 etxebizitza egin

ahal izateko (bi etxebizitza, solairu bakoitzeko). Proiektu horrek, gainera, bolumenaren hego-mendebaldeko angelua osatu zuen, hegoaldeko eta mendebaldeko fatxadak handituz.

Gaur egun, lehenagoko eskemarekin alderatuta, barrualdeak beste antolaketa bat dauka, eta akaberak erabat aldatuta daude, 1986an Ertzaintzaren bulegoak instalatzeko egindako erreforma handiaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, antolaketa orokorrari eusten zaio erdiko eskaileran eta barrualdeko patio txikian (komunak eta espazio osagarriak aireztatzeko), eta horien inguruan banatzen dira kanpoko fatxadetara ematen duten gelak. Obra horren ondorioz, barruko egitura ere aldatu zen: hormigoizko bi zutabe-lerro gehitu ziren, eta, zurezko forjatuen ordeaz, hormigoizko armatuzko sistema arinagoak ezarri ziren. 2001az geroztik, eraikina hutsik egon da, eta, beraz, zenbait kontserbazio-arazo ditu, batez ere fatxadetan eta estalkian.

Garai berean, Pierre Ducassek zuhaitzez hornitutako lorategi ederra diseinatu zuen jauregiaren inguruko lursail angeluzuzenean, eta lorategia eraikitzeke lana, berriz, Donostiako Villa María Luisa enpresak hartu zuen bere gain. Landatutako landare-espezie ugarietatik, honakoak nabarmentzen dira: 12 indigaztainondo, 32 ezki eta 44 astigar, bai eta *chamaerops excelsa* delakoak, magnoliak, bola-akaziak, katalpak eta zumarrak ere; eta, horiez gain, fruta-arbolak, zuhaixkak, musak, panpa-lezkak eta 2.900 lore-landare. Gaur egun, zenbait ale bikain kontserbatzen dira: astigar zuria (*Acer pseudoplatanus*), indigaztainondoa (*Aesculus hippocastanum*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), magnolia (*Magnolia grandiflora*), platanoa (*Platanus acerifolia*), ezkia (*Tilia*), izeia (*Abies*), izei gorria edo Gabonetako zuhaitza (*Picea abies*), intsentsu-zedroa (*Calocedrus decurrens*) eta Lawson altzifrea (*Chamaecyparis lawsoniana*). Zuhaixken artean, ezpela, aukuba eta ereinotza nabarmentzen dira.

Lorategia lursail aldapatsu batean dago, eta 10 metro inguruko desnibela dago beheko eta goiko aldean artean (jauregia goian dago). Jauregiaren atzeko fatxadan harlangaitzezko euste-horma bat dago. Espazio lau horretan, ziurrenik, gurdiek maniobrak egiten zituzten. Gainera, sigi-sagaka doan bide batek lorategiaren hego-mendebaldea zeharkatzen du. Bide horrek hartxintzarrezko zorua du, eta zintarri baxu batez dago mugatuta.

Lorategiaren jatorrizko perimetro-itxituraren zati batzuk ere kontserbatzen dira: ekialdean, harlangaitzezko eta errementeritza-lanez egindako hormatxo baxua eta Espoioia kaletik sartzeko atea, eta, ipar-mendebaldean, harlangaitzezko horma, oso lodia eta 2 metro baino gehiagoko altuera duena. Hegoaldeko muga, partzelaren itxitura duela gutxiago berreraiki da, nola edo hala jatorrizko trazadurari jarraituz eta Arrizuri kaleko sarbidea mantenduz. Mendebaldean, bihurtune formako itxitura erabat desagertu da, eta, ondorioz, partzelaren muga aldatu egin da.

Gaur egun, hiri-parke berde handi bat dago etxadi osoan, eta, deskribatutako lorategiaz gain, iparraldeko beste espazio batzuk ere hartzen ditu barnean, tartean Unceta Etxeari atxikitako lursailak. Hain zuzen ere, lursail horiek 2007an bereizi ziren etxetik, bide berri bat ireki zenean (Ramón María Lili kalea). Urbanizazio berri horren parte gisa, errementaritza-lana ere baduen harrizko hormatxo bat eraiki zen kale horretan, eta Unceta finkaren sarrera nagusia lekuz aldatu zen (hasieran, etxearen ondoan zegoen). Sarrera horrek errementeritza-lanez egindako orri bikoitzeko atetzarra du, alboetan pitxer banarekin erreमतatutako bi zutabekin.

### III. ERANSKINA

#### BABES-ARAUBIDE PARTIKULARRA

##### I. KAPITULUA

###### XEDAPEN OROKORRAK

###### 1. artikulua.– Xedea.

Babes-neurriei buruzko eranskin honek osatu egiten du Arrizuriaga Jauregia eta haren lorategia, Monumentu kategoriarekin, Babes Ertaineko Kultura Ondasun izendatzeko deklarazioa, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 16. artikulua betez.

###### 2. artikulua.– Izaera loteslea.

1.– Eranskin honetako aginduak lotesleak dira, eta bertan aurreikusitako babes-neurrien arabera kontserbatu beharko da babestutako kultura-ondasuna.

2.– Hirigintza-, lurralde- eta ingurumen-antolamenduko tresnek beren baitan jaso beharko dituzte babestutako kultura-ondasunaren babesa eta kontserbazioa bermatzeko behar diren zehaztapenak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailaren aldeko txostena izan beharko dute, 6/2019 Legearen 47. artikuluekin bat etorritz.

###### 3. artikulua.– Babestu beharreko ondasun eta balio kulturalak.

1.– Babestu beharreko kultura-ondasuna Arrizuriaga jauregiak eta haren babes-inguruneak osatzen dute, I. eranskineko mugaketaren arabera.

2.– Kultura-ondasunaren deklarazio hau eragin duen ondare-balorazioaren arabera, Arrizuriaga Jauregia eta haren lorategia ondasun garrantzitsuak dira EAEko kultura-ondarean, eta balio kultural hauek dituzte:

– Balio historikoa: Unceta eta Urquijo leinuen ondorengoek eraiki zuten XIX. mendearen azken laurdenean. Garai hartan, eraikinaren sustatzailea, José María Unceta Murua, Bergarako alkate eta Gipuzkoako Aldundiko presidente izatera iritsi zen.

– Proiektuaren eta eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa: estilo eklektikoko eta eragin frantseseko diseinu txukuna, eraikuntza-teknika onekoa.

– Berezitasuna: bere testuinguruan batere ohikoa ez den hiri-jauregia; izan ere, eraikinak haussmanniar estiloa du; garai hartan Parisko erreforma urbanistiko-higienikorako erabiltzen zen estiloa, alegia.

– Balio konpositibo-formala: fatxaden konposizio dotorea, non estilo frantsestuko baliabideak erabiltzen baitira; hala nola, ardatz bertikaletan antolatutako leihate handiak, errementeritza-lanez egindako balkoiak, malda nabarmeneko eta txapitula-formako estalkia, eta apaindura-elementuak. Konposizio-ordena horren kontrapuntu gisa, ipar-ekialdeko angeluan dagoen dorre oktogonal nabarmentzen da.

– Hirigintza-balioa: eraikinak eta lorategiak osatutako unitate morfologikoak (zeina testuinguru askoz trinkoago batez baitago inguratuta) hiri-sarea bereizteko eta aberasteko gaitasuna du.

– Ingurumen- eta natura-balioa: lorategi mardularena, duen hedaduragatik, hango landare-espezieen aniztasunagatik, eta zuhaitzetako batzuen adinagatik, tamainagatik edo arrarotasunagatik.

3.– Deskribatutako balioak babesteko asmoz, elementu hauek izango dira babesaren xede:

– Egungo eraikinaren bolumetria, barne hartuta hego-mendebaldeko angeluaren 1953ko zabal-kunde-lanak.

– Estalkia: isurialdeak, txapitulak, argizuloa, estaldurarako materiala (pikotx-formako arbelezko piezak eta pieza angeluzuzenak) eta erremateak (zink-xafla), apaindura-elementuak, tximiniak, dorrearen gaineko haize-orratza, eta abar.

– Kanpoko fatxadak: baoak, estaldurak, leihoetako eta kontraleihoetako arotzeria (materiala, kolorea, beiraren zatiketa eta irekiera-sistema) eta apaindura-elementuak; hala nola, zokaloen eta eskantzuen plakazko estaldura, baoen inguruak, erlaitzak, moldurak, inpostak, armarriak, harburuak, mentsulak, balkoietako pilastrak, errementeritza-lanak, fatxada nagusiko luminariak eta abar.

– Sarbide nagusien eta bigarren mailakoen antolaketa orokorra eta estalkiko argizuloaren azpiko komunikazio bertikaleko elementuen konfigurazio zentratua.

– Kanpoko lorategia, konposizio-elementu guztiak barne: trazadura eta profila maldan; landare-masa, gaur egun duen dibertsitatearekin, tamainarekin eta proportzioekin; eta eraikuntza- eta dekorazio-elementuak (Unceta eta Arrizuriaga finken jatorrizko itxiturako harlangaitzezko hormak, errementaritza-lanak eta sarbideak, I. eranskinean identifikatuak, eta mendebaldeko fatxadako plataforma eta euste-horma).

4. artikulua.– Elementu degradatzaileak.

1.– Honako elementu hauek hartzen dira kultura-ondasunaren balio babestuen degradatzailetzat:

– Fatxadetan: harriaren gaineko landaredia, goroldioa eta efloreszentziak, kristalezko babesak eta baoen itxiturak, banaketa-kaxak eta gainazaleko hoditeriak, kea ebakutzeko hodiak eta lehengo garajeetako hutsuneetako arotzeria.

– Estalkia: kanpoko argiteriarako proiektoreak eta kableak, telekomunikaziorako antena, eta txapitulak eta erremateak iragazgaizteko obrak.

5. artikulua.– Arau orokorrak.

1.– Babestutako kultura-ondasun hau Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren mende egongo da, baimen, erabilera, jarduera, defentsa, zehapen, arau-hauste eta bestelakoei dagokienez.

2.– Babestutako kultura-ondasunaren jabeak, edukitzaileak eta haren gaineko eskubide errealek gainerako titularrak behartuta daude hura kontserbatu, zaindu, babestu eta erabiltzera, hirigintzaren eta kultura-ondarearen arloan indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzetan, haren osotasuna ziurtatu dadin, eta ez dadin hura galdu, suntsitu edo hondatu.

3.– Babestutako kultura-ondasunei ematen zaizkien erabilerek eta haiek ustiatzeko aukera ematen duten administrazio-emakidek bateragarriak izan beharko dute babestu beharreko balio kulturekin, betiere bermatuz kontserbatu egingo direla eta balioa emango zaiela.

4.– Babestutako kultura-ondasunaren titularrek ondasunerako sarbidea bermatu behar dute Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 32. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, informazioa eta sarbidea emanaz agintari eskudunei edo beren eskumenak egikaritzeko ardura duten funtzionarioei, eta ondasuna modu publikoan bisitatzeko eta aztertzeko aukera emanaz foru-organo eskudunak berariaz baimendutako ikertzaileei.



5.– Babestutako kultura-ondasuna osorik edo partzialki eraisteko, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da ezinbestean.

## II. KAPITULUA

### ESKU-HARTZE ERREGIMENA

6. artikulua.– Esku-hartzeak baimentzea.

Babestutako kultura-ondasunean edozein esku-hartze egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundian kultura-ondarearen eskumena duen organoaren baimena beharko da, dagokion hirigintza-lizentzia edo administrazio-baimena eman aurretik.

7. artikulua.– Esku hartzeko proiektua.

1.– Babestutako kultura-ondasunaren gaineko esku-hartzeek proiektu tekniko espezifiko bat beharko dute, ondasunaren eta esku-hartzearen izaerarekin bat datorrena. Ondasunaren titularrak aurkeztu beharko du proiektu hori, Gipuzkoako Foru Aldundian kultura-ondarearen eskumena duen departamentuak onar dezan.

2.– Edonola ere, babestutako kultura-ondasunean egin beharreko esku-hartzeen aurretik, ondasunaren azterketa historikoa egin beharko da, eta lan horiek profesional eta enpresa espezializatuen esku utzi beharko dira. Profesional eta enpresa horiek, gainera, egiaztatu beharko dute beharrezko gaitasun teknikoa dutela lanak bermerik handienekin egiteko.

8. artikulua.– Esku hartzeko irizpide orokorrak.

1.– Babestutako kultura-ondasunetan egiten diren esku-hartzeek bermatu egingo dute ondasun horien gaineko ezagutza, kontserbazioa, zaharberritzea eta birgaitzea, multzoaren itxura eta interpretazioa hutsaldu edo degradatu gabe.

2.– Babestutako kultura-ondasunaren balio kulturalak transmititzen direla bermatzeko, oinarrizko jarduketa-printzipio hauek ezartzen dira: ezinbesteko eta gutxieneko esku-hartzea, prozeduren itzulgarritasuna, eta osotasuna eta benetakotasuna mantentzea.

3.– Babestutako kultura-ondasunen gaineko esku-hartze orotan, ondasunaren konfigurazio bolu-metrikoa eta lerrokadurak mantendu beharko dira.

4.– Segurtasunaren, irisgarritasunaren, efizientzia energetikoaren, osasungarritasunaren eta bestelakoen oinarrizko baldintzak ahalik eta egokitasun handienera mugatuko dira, babestutako kultura-ondasunetan edo haien ondare-balioetan eragin negatiborik izan gabe. Horretarako, konponbide berritzaileak erabiliko dira.

5.– Esku-hartzeek errespetatu egingo dituzte ondasunean bizirik dirauten eta ondasunaren bila-kaerari buruzko informazio esanguratsua ematen duten garai guztietako eranskin interesgarriak.

6.– Debekatuta dago babestutako ondasunaren teknikekin edo materialekin edo babestu beharreko balioekin bateragarriak ez diren teknikak eta materialak erabiltzea. Esku-hartzeetan erabilutako teknikak eta materialek behar bezala bermatutako portaerak eta emaitzak eman beharko dituzte; zehazki, esperientziak edo ikerketak bermatutakoak.

9. artikulua.– Babestutako ondasunen araubide espezifikoa.

1.– 3. artikuluan identifikatutako kultura-balioak babesteko, onargarrizat hartzen dira jauregiaren gaineko esku-hartze hauek:

– Fatxadak zaharberritzea eta aldatutako zatiak jatorrizko egoerara lehengoratzea; hala nola, arotzeriak, kontraleihoak edo beiren zatikatzeak.

– Barne-banaketaren eskema orokorra zaharberritzea, komunikazio-elementu zentralekin eta perimetroko egongelekin.

– Barneko egitura finkatzea edo ordeztzea, forjaketen kotak pixka bat aldatzeko aukerarekin, erlaitzak eta baoak finko mantenduz.

– Beharrezkoak diren instalazio teknologikoak edo higieniko-sanitarioak jartzea, baldin eta babestu beharreko elementuei modu negatiboan eragiten ez badiete.

– Degradatzaileak diren, interesik ez duten, edo babestutako kultura-balioak ezkututzen dituzten edo horiekin kontraste negatiboa egiten duten estaldurak, eranskinak, obrak edo elementuak kentzea.

2.– Lorategian, bestalde, honako hauek onartu ahal izango dira:

– Jatorrizko finka interpretatzera edo berreskuratuzera bideratutako hirigintza-ekintzak; besteak beste, Ramón María Lili kaleko atea jatorrizko kokapenetik hurbilago dagoen toki batera eramatea (Unceta Etxearen ondora, alegia).

– Jatorrizko itxiturako hormak, errementaritza-lanak eta ateak zaharberritzea (I. eranskineko planoan daude identifikatuta), jatorrizko trazaduraren gainean berreraikitako zatiak ordeztzea (hegoaldeko muga) eta iparraldeko eta mendebaldeko mugetako zatirik berrienak ordeztzea edo kentzea.

– Landare-masa puntualki eta aldizka berritzea (epe luzerako programa bat egin ondoren). Birlandatu beharreko zuhaitz, zuhaixka, landare eta lore espezieak hautatzearen helburua jatorrizko espezieak babestea izango da, bai eta multzoa ahalik eta benetakoena izatea ere.

3.– Oro har, debekatuta daude 3. artikuluan identifikatutako kultura-balioei kalte edo galeraren bat eragiten dieten esku-hartzeak, bai eta, bereziki, fatxadak eta haien elementu babestuak aldatzea (konposizio orokorrean funtsezko aldaketak eragiten badituzte) eta kanpoko akaberak modu berreskurazinean aldarazten dituzten garbiketa-tratamenduak egitea ere.

4.– 4. artikuluan kultura-ondasun babestuaren degradatzaile gisa identifikatutako elementuak ezingo dira sendotze- edo berritze-jarduketan xede izan, eta kendu egin beharko dira ondasunaren gaineko esku-hartze integrala egiten denean, eskumena duen foru-organoak alde aurreko baimena emanda.

10. artikulua.– Babes-ingurunearen araubide espezifikoa.

1.– Arrizuriaga jauregiaren babes-ingurunea deklaraturako kultura-ondasunaren parte da, eta, beraz, bertan egiten den edozein esku-hartze multzoan bateratu eta integratu beharko da, inguruko lorategiak eta zuhaitzak mantenduz.

2.– Babes-ingurunean, esku-hartze hauek baimenduko dira:

– Irisgarritasuna hobetzea, 11. artikuluko baldintzetan.

- Hiri-altzariak, seinaleak, argiak edo segurtasun-elementuak instalatzea.
- Ibilbideak egokitzea, zoladura bigunak edo hartxintzarrezkoak erabiliz horretarako.
- Eraikuntza berriak, baldin eta sestra gaineko bolumena, gutxienez, jauregiko fatxadak baino 30 metro harago badago, eta baldin eta jauregiaren mende geratzen bada neurriei eta kokapenari dagokienez. Edonola ere, lorategiko elementu babestuak errespetatu beharko dira.

3.– Saihestu egingo da babestutako kultura-ondasunaren gaineko kutsadura bisual edo akustikoa eragiten duen edozer instalatzea, baldin eta instalatutako horrek ondasunaren gaineko behaketa eragozten, zailtzen edo desitxuratzen badu edo haren ondare-balioak degradatzen baditu.

4.– Babes-ingurunean egindako obra txikiak, betiere kultura-ondasun babestuan eragin materialik edo bisualik ez badute, Gipuzkoako Foru Aldundian kultura-ondarearen eskumena duen organoari jakinarazi beharko zaizkio, gutxienez hilabete lehenago.

11. artikulua.– Irisgarritasun unibertsaleko arrazoizko neurriak.

1.– Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 32.4 artikulua betetzeko, babestutako kultura-ondasunerako sarbidea ahalbidetuko duten neurriak aurreikusi behar dira, eta aipatutako sarbidea irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan eman beharko da. Neurri horiek, nolana ere, bateragarriak izan beharko dute babestutako balio kulturalekin.

2.– Arrizuriaga jauregiak oztopo arkitektonikoak ditu, eta oztopo horiek eragotzi egiten dute eraikinaren kanpoaldetik barrualderako irisgarritasuna, eta, eraikinaren barruan, komunikazio bertikala ere eragozten dute.

3.– Kanpoaldearen eta barrualdearen arteko desnibela kentzeari dagokionez, lehentasuna emango zaio edozein elementu irisgarri berri instalatzeari jauregiaren atzeko fatxadan, halakorik egin daitekeenean; eta, bestela, gainerako fatxaden balio konpositibo-formala eta balio handieneko elementu estilistikoak babestea bermatuko da, batez ere fatxada nagusia.

4.– Solairuen arteko barne-komunikazioari dagokionez, konponbiderik zentzuzkoena erdiko patio hutsartean jasogailu bat instalatzea izango litzateke, patioaren jatorrizko neurriak mantentuz. Debekatuta dago estalkian edo fatxadetan bolumen berriak sortzea.

5.– Lorategiari dagokionez, ezinbestekotzat jotzen bada hiri-espazioetarako indarrean dagoen legeriaren arabera ibilbide irisgarriak egokitzea, lorategiaren orografia funtsean aldatu gabe eta babestutako elementuei modu negatiboan eragin gabe egokituko dira aipatutako ibilbideak.